



**Arartekoaren 2015R-485-14 Ebazpena, 2015eko otsailaren 9koa. Horren bidez, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari aholkatu diogu cannabis elkarte sozialen inguruko Ertzaintzaren jarduera-irizpideak berrikustea.**

### Aurrekariak

1. Euskadiko Cannabis Erabiltzaileen Elkarteen Federazioak (EUSFAC) Arartekoak esku hartzea eskatu zuen, Ertzaintzaren Guardiako Ikerketa Kriminaleko Unitateko buruak 2013ko azaroaren 7an unitate horretako lurralde-buruei bidalitako jakinarazpen bat zela eta. Jakinarazpen horretan aipatu elkarteen estatutu-jarduerari lotutako jarduera-ildoak eman zizkien.

Federazio kexagileak emandako dokumentazioaren arabera, jakinarazpenean irizpide hauek zeuden zerrendatuta:

*" 1. 'En ningún caso es lícito el cultivo de cannabis sin autorización administrativa, aunque sea para uso privado. Dicha actividad será constitutiva de delito contra la salud pública'.*

2. *'Aun siendo autorizadas, las actividades de cultivo de cannabis pueden llegar a tener relevancia penal cuando estén pre-ordenadas a su distribución entre terceras personas, incluyendo en este concepto la difusión entre los integrantes de la asociación promotora del consumo'.*

3. *'Le corresponde a la Agencia (Agencia Española del Medicamento y Productos Sanitarios), la evaluación de las solicitudes y la emisión de la autorización, en su caso, para el cultivo de Cannabis en todo el territorio nacional, con excepción de los cultivos de Cannabis destinados a fines industriales que es competencia del Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente'.*

Jakinarazpenaren beraren arabera, irizpide horiek substantzia estupefazianteak lortzeko landaregintzaren legezkotasunari edo legezkotasunik ezari buruzko txosten juridiko batetik aterata daude, baita honako dokumentu honetatik ere: *"contestación del Departamento de Inspección y Control de Medicamentos del Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad al requerimiento del Director de Coordinación de Seguridad sobre posibles autorizaciones concedidas para el cultivo de cannabis"*.

Kexa jarri zuen federazioaren iritziz, irizpide horiek ez datoz bat kontsumo partekatua inguruko jurisprudentziako doktrina penalarekin, ezta ordura arte Ertzaintzaren jardueraren oinarri ziren eta, haien aburuz, doktrina horrekin bat datozen irizpideekin. Federazioak azaldu zigun azken irizpide horiek Segurtasun Sailburuordetzako Kabineteko Araubide Juridiko Publikoko Atalak 2010eko otsailaren 16an egindako txosten batean jasota zeudela, eta txosten hori egin zutela federazioari atxikitako cannabis erabiltzaileen elkarte batek eskatu zuenean haren estatutu-jardueren legezkotasun-mailaren berri jakitea, elkartea sortu baino lehen.





Kexaren arabera, txostenak dio aipatu elkartearen jarduera ohiz kanpokoa dela ikuspegi penaletik, kontsumo partekatuaren gaineko Auzitegi Gorenaren doktrinan ezarritako parametroak betetzen dituelako. Oinarria da, zehazki, elkartearen estatutuen araberrako kontsumoa ez dela ikuspegi penaletik legez kontrakoa, eta ezta landaregintza ere, doktrina horren parametroetan gauzatzen bada.

Federazioaren arabera, txostenak dio, halaber, elkartearen jarduerak administrazio aldetik ere ez dituela legeak hausten, baldin eta elkarteko kideek cannabisa elkartearen helbidean bertan jaso eta kontsumitzen badute, eta landareak hirugarrenen bistatik urrun landatzen badituzte.

Federazioak azaldu zigun txosten hori federazioko elkartearen jarduera babesten duen dokumentu publiko gisa erabiltzen zutela, elkarte guztien estatutu-oinarriak txostena jaso zuenaren berberak direnaren uste osoarekin.

Orobat, federazioak adierazi zigun Sendagaien eta Produktu Sanitarioen Espainiako Agentziak atzera botatzen dituela cannabis erabiltzaileen elkarteak egindako eskariak, irizten diolako, batetik, elkarteek ez dutela eskaria egiteko legitimaziorik; eta bestetik, agentziak berak ere ez duela elkarteek eskatzen duten baimena emateko eskumenik.

Federazioak azpimarratu zuen federazioko elkartearen jarduerak legezkoak direla, Segurtasun Sailburuordetzako Kabineteko Araubide Juridiko Publikoko Atalak 2010eko otsailaren 16an egindako txostenaren arabera.

2. Kexa bideratzeko onartu eta aztertu ondoren, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari kexan planteatutako gaien berri eman eta Ertzaintzak arlo horretan dauzkan jarduera-irizpideak zertan diren azaltzeko eskatu genion.

Sailak erantzun dio gure eskariari, eta honako hau adierazi digu: Segurtasun Sailburuordetzako Kabineteko Araubide Juridiko Publikoko Atalak 2010eko otsailaren 16an egindako txostenaren asmoa zen jakitea cannabisa helburu terapeutiko eta ludikoetarako baliatzen zuten erabiltzaileen elkarte bateko estatutuetan deskribatutako jarduera ikuspegi penal edo administratibotik legez kontrakoa zen ala ez (elkarte horretan autokontsumoan aritzen ziren eta elkarte Euskal Herriko Elkartearen Erregistroan izena emanda zegoen); aldiz, kexa eragin zuen jakinarazpenean aipatzen den txostena, alegia Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzako Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak 2013ko urriaren 28an egindako txostena, substantzia estupefazianteak lortzeko landaregintzaren legezketasunaren edo legezketasunik ezaren gainekoa da.

Segurtasun Sailak azaldu digu, halaber, lehenbiziko txostena egin zenetik bigarrena egin zeneko tarte horretan, Estatuko Fiskaltza Nagusiak 2/2013 agindua eman zuela, eta agindu hori kontuan hartu zutela bigarren txostena egiteko.



Ertzaintzaren arlo horretako jarduera-irizpideei dagokienez, Segurtasun Sailak honako hau baino ez digu adierazi: *"se ajustan a la instrucción de la Fiscalía precitada y al informe redactado al efecto"*.

Sailak ez digu informazio gehiago eman eta ez du dokumentaziorik aurkeztu. Hori, gaia argitzeko interes berezia agertu genuen arren.

Daukagun dokumentazioa kexa egin duen federazioak emandakoa da, eta horixe erabili dugu gure analisisia egiteko.

### Gogoetak

1. Analisari ekiteko, federazio kexagileak mahaigaineratu duen gai horretan aplikatu behar den esparru juridikoa zertan den jakin beharra daukagu eta, horretarako, arlo penala eta arlo administratiboa bereiziko ditugu.

Arlo administratiboan, halaber, bi arau aztertuko ditugu bereiz: batetik, apirilaren 8ko 17/1967 Legea, estupefazianteen gaineko arauak eguneratzen dituen; eta bestetik, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoa.

### **ESPARRU PENALA**

Kode Penalaren arabera, osasun publikoaren kontra jardutea da *"ejecuten actos de cultivo, elaboración o tráfico, o de otro modo promuevan, favorezcan o faciliten el consumo ilegal de drogas tóxicas, estupefacientes o sustancias psicotrópicas, o las posean con aquellos fines"* (368. artikulua).

Alde horretatik, gogoan hartu beharra daukagu Nazio Batuen 1961eko Estupefazianteen gaineko Hitzarmen Bakarrean cannabisa era horretako substantzia gisa jasoa dagoela (l. zerrenda), eta honela dagoela definitua: *"las sumidades, floridas o con fruto, de la planta de la cannabis (a excepción de las semillas y las hojas no unidas a las sumidades) de las cuales no se ha extraído la resina, cualquiera que sea el nombre con que se las designe"* (1 artikulua). Espainiak, gainera, berronetsi egin zuen hitzarmen hori.

Auzitegi Goreneko arlo penaleko epaimahaiaren aburuz, droga toxiko, estupefaziante edo substantzia psikotropikoen autokontsumo kolektiboa, epaimahaiak berak zehaztutako moduan, ez dator bat aipatu aginduan (Kode Penaleko 368. artikuluan) aurreikusitakoarekin eta ikuspegi penaletik ohiz kanpokoa da.

Azaroaren 22ko 888/2012 epaian, Auzitegiaren doktrina honela dago emanda (Zuzenbideko Lehen Oinarria):

*“En el caso presente necesariamente se ha de partir de la doctrina de esta Sala ( SSTS 669/2012 de 25.7, 171/2010, de 10-3, 1081/2009, de 11-11; 357/2009, de 3-4 ; 1254/2006, de 21-12) que si bien ha venido desarrollando una doctrina que amplía la falta de punición de la tenencia para autoconsumo individual a algunos otros de autoconsumo en grupo, ante la presencia de casos en que, particularmente jóvenes se reúnen para compartir la droga que han adquirido con el dinero de todos, ha venido también requiriendo para reputar atípica esa conducta consistente en el consumo conjunto por diversas personas, que concurren las siguiente circunstancias (SSTS 376/2000 de 8.3, 1969/2002 de 27.11, 286/2004 de 8.3 y 378/2006 de 31.1):*

- a) *Los consumidores que se agrupan han de ser adictos, ya que si así no fuera, el grave riesgo de impulsarles al consumo o habituación no podría soslayar la aplicación del artículo 368 del Código Penal ante un acto tan patente de promoción o favorecimiento. A esta exigencia hacen referencia sentencias tales como las de 25 de junio de 1993, 3 de marzo , 3 de junio y 25 de noviembre de 1994, 27 de enero, 3 de marzo de 1995, veinte de julio de 1999, 13 de diciembre de 2001, si bien las sentencias 286/2004 de 8.3 y 408/2005 de 23.3, amplían el concepto y reputan adictos a los consumidores habituales de fin de semana, singularmente en los casos de drogas sintéticas (MDMA, MDA) en los que el patrón de consumo más habitual responde al consumidor de fin de semana, en el marco de fiestas o celebraciones entre amigos. En este sentido la STS. 718/2006 de 30.6, recuerda que ha de tenerse en cuenta que la condición del consumidor esporádico de fin de semana es la más típica y usual de los casos de consumo compartido.*

*En efecto que la exigencia de que el grupo de consumidores hayan de ser adictos, entendiéndolo esta palabra como drogodependientes no es exacta en la jurisprudencia de esta Sala y debe ser matizado, interpretándose "adicto" como consumidor de fin de semana, un patrón de uso que no exige la condición de drogadicto ( SSTS. 237/2003 de 17.2 y 983/2000 de 30.5).*

- b) *El proyectado consumo compartido ha de realizarse en lugar cerrado, y ello en evitación de que terceros desconocidos puedan inmiscuirse y ser partícipes en la distribución o consumo; aparte de evitar que el nada ejemplarizante espectáculo pueda ser contemplado por otras personas con el negativo efecto consiguiente.*

*La referencia a <lugar cerrado> es frecuente en la jurisprudencia (SS. de 26 de noviembre de 1994 y 2 de noviembre de 1995).*

- c) *La cantidad de droga programada para la consumición ha de ser <insignificante> como correspondiente a un normal y esporádico consumo ( sentencias de 25 de junio y 10 de noviembre de 1993, 21 de noviembre de 1994 y 28 de noviembre de 1995).*
- d) *La coparticipación consumista ha de venir referida a un pequeño núcleo de drogodependientes, perfectamente identificables por su número y condiciones personales, por lo que han de ser personas ciertas y determinadas, único medio de poder calibrar su número y sus condiciones personales.*
- e) *Ha de tratarse de un consumo <inmediato> de las sustancias adquiridas ( sentencias de 25 de junio de 1993, 25 de septiembre y 2 de noviembre de 1995 ) y sin contraprestación especulativa de las sustancias adquiridas al efecto (SSTS. 16.6.97 y 15.1.98) ”.*

Epaimahaiak argitu du, dena den, baldintza horiek jarreraren ezohikotasun penalaren adierazle gisa interpretatu behar direla eta garrantzitsuena dela, betiere, kasu bakoitzean zehaztea asmoa salerostea den eta, ondorioz, osasun

publikoa arriskuan dagoen ala ez; izan ere, osasun publikoa da babestu nahi den ondasun juridikoa.

Hori guztia honela dago azaldua (Zuzenbideko Lehen Oinarria):

*“Bien entendido que esta Sala (STS. 718/2006 de 30.6), partiendo de la concepción de los delitos contra la salud pública, como de infracciones de peligro en abstracto, tiene establecido que pueden existir supuestos en los que no objetivándose tal peligro se estaría en una conducta atípica, evitándose con ello una penalización sic et simpliciter, que pudiera tener efectos criminógenos y en la que no estuviese comprometido el bien jurídico que tales delitos tratan de defender, habiéndose señalado como indicadores que abonarían tal atipicidad, los acabados de exponer, en los que se trata de verificar si en el presente caso se está en un supuesto de los comprendidos en la doctrina de la Sala expuesta, debiendo añadirse que en todo caso, los indicadores citados deben de valorarse desde el concreto análisis de cada caso, ya que no debe olvidarse que todo enjuiciamiento es un concepto esencialmente individualizado y que lo relevante es si del análisis del supuesto se objetiva o no una vocación de tráfico y por tanto un riesgo para la salud de terceros. Cada uno de los requisitos que se establecen para la declaración de concurrencia no pueden ser examinados es su estricto contenido formal, a manera de test de concurrencia pues lo relevante es que ese consumo sea realizado sin ostentación, sin promoción del consumo, y entre consumidores que lo encarguen, para determinar si por la cantidad puede establecerse un razonado juicio de inferencia de estar destinada al tráfico o de consumición entre los partícipes en la adquisición”.*

Epai hori azaltzea egoki iritzi diogu, kontsumo partekatuari buruzko doktrina zertan den azaltzeko, kexa eragin duten jarduera-irizpideen oinarri den txosten juridikoak doktrina hori aipatzen duelako.

Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra daukagu epai hori eta txostenak oinarritzat hartzen duen bestea, alegia uztailaren 25eko 669/2012 epaia, aipatu betekizunak ezohikotasunaren adierazletzat hartzen dituen jurisprudenzia-ildoaren adierazgarri direla, eta beste ildo murriztaile eta zorrotzago bat dagoela, betekizun horiek batera agertzea ezinbestekotzat jotzen duena<sup>6</sup>.

---

<sup>6</sup> Malagako Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko Jose Luis Diez Ripolles eta Juan Muñoz Sanchez katedradunek honako hau diote, gai horren gainean: *“El reconocimiento jurisprudencial de la atipicidad en los supuestos tanto de consumo compartido como de (...) ha venido condicionado a que en cada caso concurren unas circunstancias que permitan fundamentar que queda excluido el peligro abstracto para la salud pública, lo que acontece cuando no existe posibilidad de difusión, de facilitación o de promoción del consumo por terceras personas de modo indiscriminado. Ello se ha plasmado en la exigencia de una serie de requisitos que la jurisprudencia ha interpretado de dos maneras distintas. La posición mayoritaria, partiendo del carácter excepcional de la atipicidad en estos supuestos, realiza una interpretación restrictiva, de manera que la ausencia de tipo se encuentra sujeta a la estricta concurrencia de los requisitos exigidos, los cuales no se conciben como indicios de las que se puede deducir la existencia o no del peligro abstracto para la salud pública, sino como auténticas condiciones de la atipicidad. Otra línea jurisprudencial más razonable rechaza el entendimiento de los citados requisitos como condiciones, y los concibe como indicadores que, en un análisis caso por caso, pueden llevar a concluir si en ese supuesto se deriva o no un riesgo para la salud de terceros indiscriminados”* (2012ko uztailaren 5eko txostena, cannabis elkarte sozialen legeko

Komeni da adieraztea, baita ere, ez dakigula seguru Auzitegi Gorenak cannabis elkarte sozial izenekoetako kontsumoaren gaineko iritzia eman duen ala ez.

Probintzia Auzitegi eta epaitegi batzuetan, kontsumo partekatua gaineko jurisprudentzia-doktrina aplikatu dute eta iritzi diote, baita ere, cannabis autokontsumorako landatzeak, aipatu baldintzetan, ez duela garrantzi penalik. Gai horren gainean gure lurraldean hartu dituzten erabaki judizial nagusiak dira, batetik, Bizkaiko Probintzia Auzitegiaren ekainaren 16ko 42/2014 epaia<sup>7</sup>; bestetik, Arabako Probintzia Auzitegiaren abuztuaren 10eko 337/2012 autoa; eta, azkenik, Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren uztailaren 6ko 250/2009 epaia. Ebazpen horiek berariaz aztertzen dute, gainera, kexan planteatutako gaia: Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistroan izena emandako cannabis erabiltzaileen elkartearen autokontsumo kolektiborako landaregintza, hain zuzen ere.

Gipuzkoako Probintzia Auzitegiak honako hau dio aipatu epaian (Zuzenbideko Laugarren Oinarria):

*"En relación con la conducta de cultivo, el Tribunal Supremo, en SS. de 9 de diciembre de 2.002 ("obtener látex necesario en la cápsula de donde extraer opio") y de 17 de noviembre de 1.997 ("el cultivo de planta de cannabis por una asociación"), parece referirse en exclusiva al cultivo como conducta que entra de lleno en la tipicidad ("el cultivo como tal entra dentro de dicha tipicidad, en razón de la consideración del delito contra la salud pública como delito de peligro en abstracto" -STS 9-12-2002-, "el cultivo de plantas" que producen materia prima para el tráfico de drogas es un acto característicamente peligrosos para la salud pública" STS 17-12-1997 -), sin aludir expresamente a que dicho acto deba estar guiado por el ánimo de promover, favorecer o facilitar el consumo ilegal de la droga cultivada. Ahora bien, ello no significa que no sea exigible la concurrencia del mismo, de esa intencionalidad de promover o facilitar ese consumo ilegal, ya que el cultivo no es sino una materialización de una de las actividades encaminadas a promover, facilitar o favorecer el consumo ilegal de drogas. Y es que no puede olvidarse, según la propia redacción del indicado precepto legal, que es un elemento subjetivo de todo el tipo penal, y por ende también de los actos de cultivo, que concurra en quien realiza la acción, además de la conciencia del carácter nocivo de la sustancia, la intención de promover, favorecer o facilitar el consumo ilegal de terceras personas, intencionalidad cuyo concurso analiza la STS de 1 de octubre de 2.001....".*

Baita honako hau ere:

*"Y es que, no puede obviarse, si el autoconsumo o consumo compartido en la forma determinada por el Tribunal Supremo en su jurisprudencia no tiene encaje en el delito del art. 368 del CP, en casos como el presente en que se da un cultivo compartido de cannabis sativa, que para la obtención del sustancia prohibida no es necesario ningún proceso químico alguno -sino sólo el sometimiento de las hojas y flores y semillas, a su secado- y cuya finalidad es el posterior consumo del producto obtenido por las propias personas que lo cultivaron, no parece que se genere un riesgo sobreañadido al propio que tiene lugar en los*

---

bideragarritasunaren gainekoa, federazio kexagileak kontsumoaren autoantolamendu-eredu gisa eskatutakoa).

<sup>7</sup> Epai horrek Auzitegiak berak hartutako beste erabaki batzuk aipatzen ditu (martxoaren 14ko 218/2006 eta azaroaren 8ko 811/2011 autoak eta irailaren 20ko 394/2013 epaia).



*supuestos propio de autoconsumo o consumo compartido de marihuana o hachís comprado, pues el cultivo y posterior consumo se produce dentro del propio grupo que generó aquél, y si bien la cantidad es relevante aisladamente considerada, ésta pierde esa relevancia, como para constituirse como un indicio sustancial de carácter unívoco, cuando como aquí ocurre el cultivo se da entre 25 personas todas ellas consumidoras y dicho cultivo exige un período de tiempo para la finalización de su ciclo”.*

Kontsumo partekaturako landaregintzari buruzko doktrina aplikatu duten beste erabaki judizial batzuk ere badaude, besteak beste: Nafarroako Probintzia Auzitegiaren ekainaren 8ko 102/2005 epaia, Madrilgo Probintzia Auzitegiaren urriaren 18ko 221/2010 epaia eta Jaengo Probintzia Auzitegiaren urtarrilaren 11ko 2/2013 epaia.

Gauzak horrela, kontsumo partekatuaren gaineko jurisprudentzia-doktrinaren eta kontsumo partekaturako landaregintza kolektiboko kasuetan doktrina hori aplikatu duten erabaki judizialen arabera, kontsumo partekatuak eta landaregintza kolektiboak ez dute garrantzi penalik, baldin eta Auzitegi Gorena doktrina horretan zehazten joan den parametroen arabera gauzatzen badira.

Edozein modutan, kontuan hartu beharra dago doktrina hori balorazioak eta interpretazioak egin ondoren aplikatu dutela kasu guztietan eta, ondorioz, erabaki judizial desberdinak hartu dituztela.

## **ADMINISTRAZIO ESPARRUA**

### Estupefazienteei buruzko apirilaren 8ko 17/1967 Legea

Estupefazienteei buruzko apirilaren 8ko 17/1967 Legea Nazio Batuen 1961eko Estupefazienteen gaineko Hitzarmen Bakarra Espainiako legeriara ekartzeko egin zuten, legeak berak dion moduan.

Legeak, arrazoen azalpenean, honako hau dio estatuaren estupefazienteen inguruko jarduerari buruz: *“caracterizada por un grado singular de intervención y vigilancia, en todos los campos posibles, desde su producción hasta su consumo”*. Sistemaren funtsezko oinarrietako bat *“una administración por el sector público, minuciosa y total, de los estupeficientes”* dela ere badio.

Eredu esku-hartzaile horri jarraikiz, legeak dio pertsona fisiko eta juridikoek ezin dutela landatu, baimenik gabe, substantzia estupefazienteak ekoizteko landareri, ezta substantzia estupefaziente gisa erabil daitekeen landareri ere, salbu cannabisa, baldin eta helburu industrialekin landatzen bada eta estupefazienteen osagai aktiborik ez badu (8. eta 9. artikulua). Legeak honako hau ere badio: *“No se permitirán otros usos de los estupeficientes que los industriales, terapéuticos, científicos y docentes autorizados con arreglo a la presente Ley”* (22. artikulua).



Legearen arabera, "tráfico ilícito todas las operaciones de cultivo, adquisición, enajenación, importación, exportación, depósito, almacenamiento, transporte, distribución y tránsito de sustancias estupefacientes que sean realizadas contrariamente a las disposiciones el presente Ley o con incumplimiento de los preceptos de la misma" (15. artikulua).

Legearen arabera, "tráfico ilícito todas las operaciones de cultivo, adquisición, enajenación, importación, exportación, depósito, almacenamiento, transporte, distribución y tránsito de sustancias estupefacientes que sean realizadas contrariamente a las disposiciones el presente Ley o con incumplimiento de los preceptos de la misma" (15. artikulua).

### 32. artikulua

*"Tendrán naturaleza de infracciones administrativas y serán sancionadas por el Consejo de Ministros, el Ministerio de la Gobernación o la Dirección General de Sanidad, según la distribución de competencia que se hará reglamentariamente, las acciones u omisiones contrarias a la efectividad de las normas administrativas que se dicten por los órganos correspondientes de dicho Ministerio o a iniciativa del mismo, en aplicación de lo dispuesto en esta Ley, a las Ordenes o instrucciones o a las condiciones fijadas por dichos órganos en el ejercicio de su competencia".*

### 33. artikulua

*"Concretamente serán perseguidas administrativamente, sin perjuicio de que puedan integrar delito y ser perseguidas por la vía correspondiente:*

- *La inexistencia o la falta de puntualidad, veracidad o exactitud de los registros, partes, declaraciones y demás controles obligatorios.*
- *El incumplimiento o defectuosos cumplimiento de las formalidades y prevenciones administrativas establecidas o que se establezcan para la consecución de las finalidades de esta Ley.*
- *Las ocultaciones y toda clase de entorpecimientos o de faltas de colaboración debida al Servicio de Control de Estupefacientes, especialmente en relación con la acción inspectora y de vigilancia que le corresponde".*

Hona hemen lege-hauste horietarako legeak ezartzen dituen zigorrak:

### 34. artikulua

*"Las sanciones que pueden ser impuestas para corregir las infracciones a que se refieren los dos artículos precedentes serán:*

- *Multa de hasta 500.000 pesetas.*
- *Suspensión o revocación definitiva de las autorizaciones, licencias o permisos concedidos por el Servicio de Control de Estupefacientes.*
- *Resolución de los conciertos, contratos o convenios que el mismo haya celebrado con personas o Entidades privadas.*
- *Disminución o supresión total de los suministros a los Centros docentes o de investigación.*
- *Clausura temporal de un mes a un año o definitiva de farmacias, botiquines o establecimientos comerciales o industriales.*





- *Suspensión para el ejercicio de cargos, profesiones, oficios o actividades relacionadas con la producción, fabricación y tráfico de estupefacientes”.*

Ikusten denez, 15. artikulua aipatzen duen legez kontrako trafikoa, non landaregintza ere sartzen den, ez dago arau-hauste administratibo gisa tipifikatua 32. eta 33. artikuluetan.

Gure iritziz, tipifikaziorik eza nahikoa da aipatu aginduak (15. artikulua) zehazten duen legez kontrakotasun hori administratiboa ez, baina penala dela ulertzeko.

Hori dela eta, gure aburuz ezinbestekoa da artikulua hori eta artikulua horren iraunaldia interpretatzerakoan Kode Penalean gero egin den arauketa kontuan hartzea, baita kontsumo partekatuari buruzko jurisprudentzia-doktrina ere, doktrina horren arabera kontsumo partekatua ikuspegi penaletik ohiz kanpoko baita, baldin eta doktrinan bertan zehaztutako moduan egiten bada. Gure iritziz, aintzat hartu beharko litzateke, baita ere, doktrina hori aplikatuz hartutako erabaki judizialean cannabisa kontsumo partekaturako landatzea ohiz kanpokotzat jo dutela, ikuspegi penaletik, baldin eta doktrinan aipatu baldintza horietan gauzatzen bada.

Kontuan hartu beharra dago, baita ere, apirilaren 8ko 17/1967 Legea konstituzioaren aurrekoa dela eta lege horretako aurreikuspenak konstituzioaren arabera interpretatu behar direla.

Gauzak horrela, legean zehaztutako zehapen-araubidea konstituzioko 25.1 artikulua ezartzen duen berme materialarekin bat ote datorren zalantza daukagu. Adierazi nahi dugu, zehazki, jarrera arau-hausleak eta jarrera horiei dagozkien zigorrak ziurtasun-maila nahikoarekin zehaztu beharra daudela arauetan, eta lege-hausteeak eta zigorrek bat etorri behar dutela; hori, segurtasun juridikoa ziurtatzeko eta herritarrek haien ekintzek zer ondorio dituzten aurrez jakiteko.

Auzitegi Konstituzionalaren iritziz, berme hori konstituzioaren aurreko arauetan ere aplikatzen da. Auzitegiak honako hau dio arau horien gainean: *“tras la entrada en vigor de la Constitución, no resulta admisible imponer sanciones al amparo de normas preconstitucionales que no tipifiquen con el grado de certeza y concreción constitucionalmente exigible las conductas infractoras”* (Auzitegi Konstituzionalaren martxoaren 29ko 116/1993 epaia).

Gure iritziz, 32. artikuluan segurtasun juridikorik eza nabaria da, jarrera arau-hausleak ez daudelako zehaztuta. Zigorrei dagokienez ere, berme hori ez da betetzen, ez duelako zehazten lege-hauste bakoitzari zer zigor dagokion.

Legearen arabera, baimenik gabeko landaregintza ez da lege-hauste administratiboa, ez dago horrela berariaz tipifikatuta. Dena den, pentsa





dezakegu jarrera hori tipifikatutako lege-hauste orokor honekin bat etor daitekeela: *"El incumplimiento o defectuoso cumplimiento de las formalidades y prevenciones administrativas establecidas o que se establezcan para la consecución de las finalidades de esta Ley"* (33. artikulua). Gure iritziz, ordea, interpretazio hori zalantzarria da, konstituzioko 25.1 artikulua eskatzen duelako jarrera arau-hauslea zehaztea.

Bestalde, aginduaren literaltasuna kontuan hartuta (33. artikulua), pentsa genezake artikulua hori baimenetik eratorritako formalitate eta prebentzio administratiboez ari dela, eta horrek baimenik eza dagokion arlotik kanpo utziko luke. Badirudi, beraz, baimenik eza 15. artikuluan aurreikusitako legez kontrako trafikoaren kasuarekin duela lotura estuagoa.

Gure iritziz, interpretazio hori are sendoagoa da legean arau-hauste gisa tipifikatutako jarrera guztiak baimenarekin eta baimendutako landaregintzarekin zerikusia duten arau-hausteetara bideratzen direlako. Eta zehapenen gainean gauza bera esan genezake, baimendutako jarduerekin zerikusia dutela diruditelako (isunak salbu).

Legean, baimendutakoez aparteko erabilera duten landareak landatzea ere ez dago berariaz arau-hauste administratibo gisa tipifikatua. Hori izan daiteke, beharbada, legearen eskemaren arabera jarrera hori 15. artikuluan aurreikusitako legez kontrako trafikotzat hartu delako.

Gauzak horrela, legeria penalaren bilakaeraren eta justizia auzitegiek legeria horretaz egin duten interpretazioaren ondorioz, badirudi cannabisa baimendu gabeko erabileretako landatzea lege-hauste penal izatetik (apirilaren 8ko 17/1967 Legea) ikuspegi penaletik ohiz kanpoko jardura izatera igaro dela, baldin eta autokontsumo partekatuari buruzko jurisprudentzia-doktrinaren arabera gauzatzen bada. Alde horretatik, jarrera hori, legeak baimentzen ez duen arren, ez dago lege-hauste administratibo gisa tipifikatuta, legean bertan ez zegoelako horrela aurreikusia, lege-hauste penal gisa baizik, eta legea ez da aldatu egoera berrira moldatzeko.

Edozein modutan, interpretazioa dena delakoa ere, gure iritziz garrantzitsuena da, batetik, cannabisa baimendu gabeko erabileretako landatzea gaur egun ohiz kanpoko dela ikuspegi penaletik, betiere autokontsumoari buruzko jurisprudentzia-doktrinak ezarritako baldintzetan landatzen bada; eta bestetik, apirilaren 8ko 17/1967 Legeak, baimentzen ez badu ere, ez duela zigor administratiboei estaldura legala ematen dion zehapen-araubiderik ezarri, eta ez dagoela estaldura hori ematen duen beste legerik.

Gure aburuz, ulertu ahal izateko cannabisa baimenik gabe landatzea legean arau-hauste administratibo gisa tipifikatuta dagoela eta tipifikazio horrek konstituzioaren berme materiala errespetatzen duela, jarri ditugun eragozpenak gainditu beharko lirarteke.



Azkenik, kontuan hartuta kexa Ertzaintzaren jarduera-ildoaren ingurukoa dela, adierazi beharra daukagu Estupefazienteei buruzko apirilaren 8ko 17/1967 Legea osasunaren arlokoa dela, legeak arrazoien azalpenean argitzen duen moduan, eta ez herritarren segurtasunaren arlokoa. Izan ere, cannabisa landatzea baimentzeko eskumenaren oinarria aipatu arlo material hori da (gaur egun, eskumen hori Sendagaien eta Produktu Sanitarioen Espainiako Agentziak dauka, irailaren 16ko 1275/2011 Errege Dekretuaren arabera).

### Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoa.

Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren arabera, lege-hauste larria da *"el consumo en lugares, vías, establecimientos o transportes públicos, así como la tenencia ilícita, aunque no estuviera destinada al tráfico, de drogas tóxicas, estupefacientes, o sustancias psicotrópicas, siempre que no constituya infracción penal, así como el abandono en los sitios mencionados de útiles o instrumentos utilizados para su consumo"* (25. artikulua).

Auzitegi Konstituzionalak adierazi duenez, epaitegiei dagokie arau horretan agertzen den "tenencia ilícita" kontzeptua –*"no tachable de impreciso"* iruditzen zaiona– zehaztea: *"aunque sí será necesario acudir a otras reglas legales, como la Ley 17/1967, de 8 de abril, sobre normas reguladoras de estupefacientes, para identificar lo que sea tenencia ilícita (art. 22 de dicha Ley) y determinar por contraste con ellas la tenencia ilícita sancionable"* (Auzitegi Konstituzionalaren azaroaren 18ko 341/1993 epaia).

Lehen esan bezala, apirilaren 8ko 17/1967 Legeko 22. artikulua honako hau dio: *"No se permitirán otros usos de los estupefacientes que los industriales, terapéuticos, científicos y docentes autorizados con arreglo a la presente Ley"*. Baita honako hau ere: *"Los estupefacientes deberán ser usados o consumidos precisamente para el objeto con que hayan sido suministrados por el Servicio o dispensados por las farmacias, considerándose prohibidos cualquier cambio o consumo (...) a no ser que se obtenga, también reglamentariamente, la autorización o la prescripción necesaria para el nuevo uso o consumo"*.

Hortaz, Auzitegi Konstituzionalaren doktrinaren arabera, apirilaren 8ko 17/1967 Legeak baimendu gabeko erabileretarako estupefazianteak edukitzea eta dagozkien xedeetatik aparte baimenik gabe erabiltzea edo kontsumitzea, Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoko 25. artikulua arabera, legez kanpo edukitzea da.

Horrez gain, gogoan hartu behar dugu Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Salak legeko doktrina hau ezarri duela, artikulua horren gainean: *"el concepto de tenencia ilícita de drogas tóxicas, estupefacientes o sustancias psicotrópicas, tipificada en el precepto indicado, incluye la tenencia, para propio consumo, aunque no estuviera destinada al tráfico, siempre que no"*

*constituya infracción penal"* (Auzitegi Gorenaren 1998ko irailaren 28ko epaia, 6. atala).

Gauzak horrela, bi doktrina horiek aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, martxoaren 21eko 289/2003 epaian, eta Kataluniako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salak, irailaren 28ko 703/2002 epaian, iritzi diote cannabisa edukitzea legez kanpkoa dela Estupefaziantei buruzko apirilaren 8ko 17/1967 Legean araututako esku-hartze administratibotik kanpo gertatzen bada, eta norberaren kontsumorako edukitzea legez kanpkoa dela otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoko 25.1 artikularen xedeetarako.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak honako hau adierazi zuen, aipatu epaian, "legez kanpo edukitzea" kontzeptuaren inguruan (Zuzenbideko Laugarren Oinarria):

*"...los estupefacientes tienen la consideración de artículos o géneros prohibidos y, en consecuencia, no pueden ser objeto de producción, fabricación, tráfico, posesión o uso, con excepción de las cantidades necesarias para la investigación médica y científica, incluidos los experimentos clínicos con dichos estupefacientes que se realicen bajo la vigilancia y fiscalización de la Administración Sanitaria, según dispone el artículo 1 de la Ley 17/1967. Por otra parte, de acuerdo con su artículo 22, no se permitirán otros usos de los estupefacientes que los industriales, terapéuticos, científicos y docentes autorizados con arreglo a la presente ley, debiendo ser usados o consumidos precisamente para el objeto con que hayan sido suministrados. De modo que es ilícita la tenencia que se produce al margen de esos usos, como es el caso".*

Lege horretan landaregintza ez dago arau-hauste gisa tipifikatuta. Bai, ordea, iazko uztailan Estatuko Gobernuak Gorte Nagusietara igorri zuen herritarren segurtasunaren babesari buruzko Lege Organikoaren proiektuan. Proiektu horretan arau-hauste berri bat tipifikatzea proposatu zuten: *"La ejecución de actos de plantación y cultivo ilícitos de drogas tóxicas, estupefacientes o sustancias psicotrópicas en lugares visibles al público, no constitutivos de delito"* (36.20 artikulua).

Baita honako hau ere: *"El consumo o la tenencia ilícitos de drogas tóxicas, estupefacientes o sustancias psicotrópicas, aunque no estuvieran destinadas al tráfico, en lugares, vías establecimientos públicos o transportes colectivos, así como el abandono de los instrumentos u otros efectos empleados para ello en los citados lugares"* (36.17 artikulua).

2. Drogen eta Toxikomanien Europako Behatokiaren arabera, Europar Batasunean muturreko bi iritzi daude gaur egun cannabisaren gainean. Hori dela eta, eztabaida publikoa bizi-bizi dago, eta are gehiago piztu da Estatu Batuetako eta Latinoamerikako zenbait lekutan onartu dituzten legegintza-berrikuntzen ondorioz<sup>8</sup>.

---

<sup>8</sup> Drogei buruzko Europako Txostena, 2014koa.



Bi mutur horietako batean substantzia horren gaineko politika publikoak aldatu beharra daudela dioten gizarteko sektoreak daude. Gai konplexua da, dudarik gabe, osasunari eragiten diolako eta kontu handiz aztertu behar delako, dauzkan konnotazio ugariak aintzat hartuta.

Lehen aipatu dugun kontsumo partekatuari buruzko jurisprudentzia-doktrinak bidea eman die cannabis erabiltzaileei cannabis elkarte sozialak sortzeko. Elkarte sozial horien xedea da, besteak beste, cannabisa seguru eskuratzea eta arduraz kontsumitzea, merkatu klandestinoaren hautabide gisa, eta kontsumoarekin zerikusia duten arriskuak gutxitzea.

Gurean, doktrina horren babesean, erabiltzaileek irabazi-asmorik gabeko elkarte ugari sortu dituzte, eta Euskal Herriko Elkarteen Erregistroan izena emanda daude.

Gainera, azken urteetan, hainbat ekimen publikotan proposatu dute eztabaida irekia egitea eta elkarte horien jarduerari estaldura egokia eta segurtasun juridikoa emateko esparru legala ezartzeko aukera aztertzea.

Ekimen horietako bat Eusko Legebiltzarreko Osasun eta Kontsumo Batzordean legealdi honetan eratu den batzorde txostengilea da; hona hemen batzordeak landu duen gaia: "Cannabis elkarte sozialen jarduera arautzeko konponbidearen analisia" (espedientea: 10\11\08\00\0004). Batzordeak ondorioak eta aholkuak aurkeztu ditu, txosten batean. Txosten hori aurreko legealdikoaren ordezkoa da, legealdia amaitu zenean lanak bertan behera utzi behar izan zituztelako (legealdi hartan Arartekoak parte hartu zuen).

Beste ekimenetako bat Eusko Jaurlaritzak iazko abenduaren 9an onartu zuen eta gero Eusko Legebiltzarrera igorri zuen Atxikimenduei buruzko Legearen proiektua da, non honako hauek aurreikusi dituzten:

*"Artículo 83.-Entidades de personas consumidoras de cannabis*

- 1. En aras al objetivo de protección de la salud y reducción de daños, se regularán mediante reglamento las entidades –legalmente registradas y sin ánimo de lucro- constituidas por personas mayores de edad consumidoras de cannabis. Estas entidades incluirán entre sus objetivos asociativos la colaboración con la administración, en el cumplimiento efectivo de la normativa vigente, así como en la prevención de las adicciones y en la promoción del consumo responsable del cannabis y otras sustancias.*
- 2. Únicamente podrán acceder a sus locales las personas mayores de edad. Reglamentariamente se determinarán las condiciones de admisión a personas socias y las garantías para que quienes formen parte de estas entidades cuenten con la información suficiente para hacer un uso responsable e informado del cannabis, así como las facultades de la administración sanitaria en materia de inspección y control sobre los locales y las actividades de las entidades de personas consumidoras de cannabis".*



Beste ekimen garrantzitsu bat cannabis elkarte sozialen kokapena arautzen duen Donostiako Udalaren Ordenantza da; ordenantza hori 2014ko urriaren 30ean onartu zuten behin betiko eta azaroaren 8an argitaratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Ordenantzan jarduera horretarako lokalak irekitzeko udal-baimena behar dela zehaztu dute, eta baimen hori lortzeko baldintzak jarri dituzte. Arau hori, arrazoien azalpenaren atalean adierazi dutenaren arabera, Udalerrian Atxikimenduak Kontrolatzeko 2013-2015 aldiko Planaren esparruan sartu dute. Izan ere, plan horretan cannabis erabiltzaileen elkarteek baliatzen dituzten lekuen erabilera arautzeko aukera planteatu zuten.

Legegintza-ekimenei dagokienez, Nafarroan cannabis erabiltzaileen kolektiboak arautzen dituen abenduaren 2ko 24/2014 Foru Araua azpimarratu beharra daukagu.

Baita Droga-mendekotasunaren Euskal Behatokiak egindako txosten hauek ere: "Cannabisa: osasuna eta zuzenbidea. Erabilerak, araudiak, azterlanak eta normalizatzeko ekimenak" (6. txostena, 2003. urtea) eta "Cannabisaren erabilera normalizatuari buruzko eztabaida sozialerako dokumentu teknikoa" (17. txostena, 2005. urtea).

Azkenik, ezinbestekoa dugu aipatzea Arartekoak gai hori hainbat diziplinen ikuspegitik eztabaidatze aldera 2011n antolatu zuen Cannabisaren inguruko Hausnarketa eta Herritarren Partaidetza Foroa: "Cannabisa: erabilerak, segurtasun juridikoa eta politikak"<sup>9</sup>.

3. Federazioak aurkeztutako kexak hizpide duen gaian gure iritziz aplikatu behar den esparru juridiko orokorraren eta cannabis elkarte sozialen errealitate berriaren aurrean antolatu dituzten ekimen batzuen berri eman ondoren eta gaia aztertzen hasi aurretik, zehaztu beharra daukagu kexan aipatu dituzten bi txosten juridikoak aztertuko ditugula ez txosten juridiko huts gisa, hori gure esku-hartze eremutik kanpo legokeelako (Otsailaren 27ko 3/1985 Legean –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoan– dago eremu hori mugatua, 10. artikuluan, hain zuzen ere), baizik eta Ertzaintzak ustez bere egin eta jarduera-irizpide moduan erabiltzen dituen txosten gisa.

Segurtasun Sailak eman dizkigun azalpenak ikusita, zehaztu beharra daukagu, halaber, bi txostenek cannabis erabiltzaileek cannabis kolektibo gisa landatzea legezkoa den ala ez aztertzen dutela, eta elkarte horietako kideek cannabis erabili, partekatu eta edukitzearekin zerikusia duten beste gai batzuk ere badituztela hizpide.

Federazio kexagileak eman digun dokumentazioaren arabera, lehenbiziko txostenean, alegia 2010. urtekoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistroan izena emanda zeuden era horretako elkartearen estatutuetan

---

<sup>9</sup> Foroaren lana Arartekoaren "Francisco de Vitoria" giza eskubideen bilduman dago argitaratua.

deskribatutako jarduera arau-hauste penal edo administratiboa izan zitekeen aztertu zuten. Txostenean aztertu zuten, zehazki, honako hauek arau-hauste penal edo administratiboak izan zitezkeen ala ez: a) *"facilitar a los usuarios de cannabis, ya sean terapéuticos o lúdicos, el acceso a su consumo de una manera responsable, controlada y legal, y siempre con carácter individualizado y personal"*; eta "b) el cultivo y uso compartido del cannabis".

Gauzak horrela, txostenean gaia ikuspegi penaletik eta zuzenbide administratibo zehatzailearen ikuspegitik aztertu zuten, bi arloak argi eta garbi berezita.

Esparru penalari dagokionez, txostenaren iritziz, elkarteak cannabisa landatzea ezin da Kode Penaleko 368. artikuluan tipifikatutako delitutzat hartu, baldin eta Auzitegi Goreneko arlo penaleko epaimahaiak kontsumo partekatuaren gaineko doktrinan ezarritako parametroen eta, doktrina hori aplikatuz, jurisdikzio-ordena horren azpitik dauden epaimahai eta epaitegiek hartu dituzten erabakien arabera gauzatzen bada. Txostenak dio, beraz, antzeko elkarteek kideek kontsumitzeko cannabisa landatzeak ez duela garrantzi penalik. Txostenaren oinarrietako bat da, hain zuzen ere, lehen aipatu dugun Droga-mendekotasunaren Euskal Behatokiaren txostena: "Cannabisa: osasuna eta zuzenbidea. Erabilerak, araudiak, azterlanak eta normalizatzeko ekimenak". Behatokiaren txostenaren ondorioa da norberak edo elkarteko kideek kontsumitzeko cannabisa landatzea ez dela delitu, baldin eta epaimahaien irizpideak errespetatuz landatzen bada. Gauzak horrela, txostenak honako hau dio: *"el cultivo de plantas de cannabis sería típico penalmente sólo cuando se realiza con intención de destinar posteriormente el producto obtenido a su difusión, venta o entrega a otras personas"*. Baita beste hau ere: *"De la lectura de sus estatutos se depende que el posible cultivo de cannabis realizado por la asociación (...) sería exclusivamente para el consumo de los asociados, por lo que siempre que no sobrepase las condiciones establecidas por los Tribunales, a las que hace referencia el Observatorio Vasco de Drogodependencias el cultivo no constituiría infracción del artículo 368 del CP"*.

Esparru administratibo zehatzaileari dagokionez, txostenak Auzitegi Konstituzionalak azaroaren 18ko 341/1993 epaian Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko Lege Organikoko 25. artikulua gainean esandakoa du oinarri (1. atalean aipatu dugu artikulua hori), eta honako hau dio: *"cualquier tenencia, esté o no destinada al autoconsumo y que no esté contemplada en el Código Penal, destinada a usos distintos de los expresados en el artículo 22 de la Ley 17/1967, de 8 de abril, reguladora de la normativa sobre estupefacientes, es ilícita desde el punto de vista administrativo y podría dar lugar a la apertura del correspondiente expediente sancionador"*.

Txostenaren arabera, halaber, cannabisa autokontsumo partekaturako landatzea ez da arau-hauste administratiboa, baldin eta hirugarrenek ez ikusteko moduan landatzen bada; horretarako, honako hau hartzen du

oinarriztat: *"punto II.2.4 de las Instrucciones relativas al procedimiento sancionador en materia de drogas en el que se dice que 'No constituirá conducta sancionable el consumo particular de drogas tóxicas, estupefacientes o sustancias psicotrópicas, realizado en lugares no abiertos al público (como puede ser un domicilio particular) o la posesión de tales sustancias en estos lugares' "*.

Txostenaren ondorioa zorrotz-zorrotza da, hona hemen:

*"A la pregunta objeto de este informe, sobre si las actividades reflejadas en los estatutos de la asociación (...) son constitutivos de un presunto delito de tráfico de drogas, la respuesta es no, siendo igualmente negativa para la infracción administrativa.*

*Ninguna duda ha ofrecido la tenencia y consumo de los asociados, por tratarse de un autoconsumo compartido. Respecto al cultivo, pese al posicionamiento del Tribunal Supremo en el caso de Tarragona<sup>10</sup>, la posterior evolución de los Tribunales y lo que al respecto dice el propio Gobierno Vasco a través del Observatorio Vasco de Drogodependencias (que parece haber servido en algunos puntos de guía para la confección de estos estatutos) llevan a la misma conclusión".*

Federazio kexagileak 2013ko txosten juridikoaren kopia eman zigun. Txosten horren helburua da, daukan izenburuaren arabera, argitzea substantzia estupefazianteak lortzeko landareak haztea legekoa den ala ez.

Pentsa genezake, beraz, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak kexaren inguruan eman digun informazioaren arabera dirudien moduan, aurreko txostenaren aldean gai desberdin eta zabalagoak aztertzen dituela.

Bi txostenek berdin dute, ordea, cannabis erabiltzaileen elkarteen jarduera arau-hauste penal edo administratiboa izan daitekeen ala ez aztertzen dutela, nahiz eta balorazioa desberdina izan. Alde horretatik, gogoan hartu behar dugu txostenen balorazioak desberdinak izatea eragin duela Ertzaintzak jarduera-irizpideak aldatzea.

Nabarmendu behar dugu, gainera, 2013ko txostena cannabis landatzearen ingurukoa dela, zehatz-mehatz, eta substantzia horren erabiltzaileen elkarteak aztertzen dituela, batik bat. Egiaz, aipatzen dituen aurrekari guztiak elkarteek landatzen duten cannabisaren ingurukoak dira (Herrizaingo Sailaren aurreko txosten juridikoa; Eusko Legebiltzarraren txostena, "Cannabis elkarte sozialen jarduera arautzeko konponbidearen analisia"; eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2013 instrukzioa, "cannabis kontsumitzea sustatzen duten elkarteei buruzko gai batzuen ingurukoa", zeinaren edukia errepikatzen duen, neurri handi batean).

---

<sup>10</sup> Auzitegi Goreneko arlo penaleko epaimahaiaren 1997ko azaroaren 17ko epaia da. Epaia hori aipatzen du, baita ere, gogoeten lehenbiziko atalean partzialki transkribatu dugun Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren epaiak.





Bestalde, txostenak, izenburuak besterik badio ere, ez du hazkuntza bakarrik aztertzen, estupefazianteak apirilaren 8ko Estupefazianteei buruzko 17/1967 Legean baimenduta ez dauden xedeetarako edukitzea, kontsumitzea eta erabiltzea ere aztertzen du.

Bigarren txostenak, aurrekoak bezala, kontsumo partekatuari buruzko jurisprudentzia-doktrina penala hartzen du abiapuntutzat, eta ondorioztatzen du cannabis erabiltzaileen elkarteen landaregintza kolektiboa ohiz kanpoko jarduera dela ikuspegi penaletik, baita doktrina horretan adierazitako moduan gauzatzen bada ere. Horren harian, Auzitegi Nagusiak 2012ko txosten juridikoaren ondoren emandako bi epai aipatzen ditu, iritzi berekoak direlako: bata, uztailaren 25eko 669/2012 epaia; eta bestea, azaroaren 22ko 888/2012 epaia. Azken epai hori aurreko 1. atalean partzialki transkribatu duguna da.

Txostenak dio, baita ere, aipatu betekizunak *"no pueden ser examinados a manera de test de concurrencia, pues lo relevante es que ese consumo sea realizado sin ostentación, sin promoción del consumo, y entre consumidores que lo encarguen, para determinar si por la cantidad puede establecerse un razonado juicio de inferencia de estar destinadas al tráfico o de consumición entre los participantes en la adquisición"*. Beraz, gai horren gainean Auzitegi Gorenak azaroaren 22ko 888/2012 epaian esandakoa errepikatzen du (hori ere lehen aipatu atalean transkribatu dugu).

Txostenak epai hori eta uztailaren 25eko 669/2012 epaia hartzen ditu oinarri, eta, esan bezala, epai horiek jurisprudentzia-jarrera irekienaren adierazpenak dira: kontsumo partekatuaren gaineko doktrinak ezartzen dituen betekizunak ezohikotasun-adierazletzat dituzte, ez zorrotz bete beharreko baldintzat. Hori horrela izanik ere, txostenak dio cannabis landatzeak eragin penala izan dezakeela hirugarrenei banatzeko landatzen bada, baita hirugarren horiek cannabis erabiltzaileen elkarteko kideak badira ere.

Gure aburuz, ordea, kideak elkartarekin zerikusirik ez duten pertsonatzat hartzea ez dator bat aipatu jurisprudentzia-doktrinarekin (doktrinak dio cannabis doktrinak berak ezarritako parametroen arabera banatzea ikuspegi penaletik ohiz kanpoko delat), ezta doktrina hori aplikatu duten arlo penaleko maila txikiagoko epaitegi eta epaimahaien erabakiekin ere. Ez dugu ahaztu behar elkarrekin kideak pertsona zehatzak direla eta, beraz, lehen begiratuan, ez dirudi eragotzi nahi den bereizi gabeko banaketa arriskurik dagoenik.

Orobat, badirudi txostenak garrantzi penala ematen diola Estupefazianteei buruzko apirilaren 8ko 17/1967 Legea ez betetzeari; hori, guk ulertu dugunaren arabera, 15. eta 33. artikuluek diotena oinarri hartuta. Gure iritziz, ordea, interpretazio hori ez dator bat aipatu jurisprudentzia-doktrinarekin; gainera, ez du kontuan hartzen lege hori konstituzioaren aurrekoa dela eta, beraz, konstituzioaren arabera eta arlo penalean gai horrek lege eta





jurisprudentzia aldetik izan duen bilakaeraren arabera interpretatu behar dela, lehen arrazoitu dugun moduan.

Gai horri dagokionez, txostenak dio, zehazki, legeak *"establece un régimen de sanciones administrativas respecto del incumplimiento de sus normas, sin perjuicio de que la infracción pueda ser constitutiva de delito"*. Gainera, aintzat hartuta legearen arabera estupefazianteak landatzeko baimen administratiboa behar dela (8. artikulua) eta estupefazianteak legean baimendutako erabileretarako baino ezin direla erabili (22. artikulua), txostenak irizten dio: a) baimenik gabe landatzea ez dela legezkoa, erabilerari bada ere, eta jardura hori osasun publikoaren kontrako delitutzat edo, bestela, arau-hauste administratibotzat hartuko dela; eta b) baimendu gabeko erabilerari dagokienez, legeak *"establece que todas las actuaciones que sean realizadas contrariamente a sus disposiciones o con incumplimiento de la misma son constitutivas de delito contra la salud pública (15. artikulua) o, en su defecto, de infracción administrativa"* (32. eta 33. artikulua).

Balorazio hori ikusita, berretsi behar dugu legeak arlo penalean egiten dituen aurreikuspenak interpretatu behar direla kontuan hartuta, batetik, Kode Penalean orduz geroztik araututakoa; eta bestetik, kontsumo partekatuari buruzko jurisprudentzia-doktrina eta doktrina hori kontsumo partekaturako landaregintza kolektiboko kasuetan aplikatu duten erabaki judizialak. Izan ere, erabaki judizial horien esanetan, gaur egun ikuspegi penaletik ohiz kanpokotzat jotzen dira kontsumo partekatua eta kontsumo partekaturako landaregintza kolektiboa, baldin eta aipatu doktrinak adierazitako moduan gauzatzen badira, legearen xedapenak bete ala ez.

Orobat, gai horren inguruan aurreko 1. atalean esandakoa berretsi beharrean gaude.

Esparru administratibo zehatzaileari dagokionez, arau-hauste posibleak Estupefaziantei buruzko apirilaren 8ko 17/1967 Legean kokatzen ditu, adierazi ditugun baldintzetan; eta baita Herritarren Segurtasunaren Babesari buruzko otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoaren 25. artikuluan ere.

Estupefaziantei buruzko apirilaren 8ko 17/1967 Legearen gaineko gogoetegi dagokienez, aurreko 1. atalean egindako analisia berretsi beharra daukagu. Eta azpimarratu behar dugu, batetik, legeak ez duela zehapen-araubiderik ezarri, cannabisa baimendu gabeko erabileretarako landatzeagatik isuna jarri ahal izateko estaldura legala ematen duenik; eta bestetik, jarri ditugun eragozpenak gainditu beharko lirakeela ulertu ahal izateko cannabisa baimenik gabe landatzea legean arau-hauste administratibo gisa tipifikatuta dagoela eta aurreikusitako zehapen-araubideak konstituzioaren 25.1 artikulutik eratorritako berme materiala betetzen duela.

Bigarren legeari dagokionez, txostenak hau dio: *"tampoco es lícita la tenencia de cannabis aunque no esté preordenada a la transmisión a terceros, toda vez"*



*que el artículo 25.1 de la LO 1/1992, de 21 de febrero, sobre Protección de la Seguridad Ciudadana, sanciona tal conducta como infracción grave, estableciéndose en su artículo 28.2 la procedencia de su incautación inmediata".*

Puntu horretan, txostenak ez ditu aipatzen "drogen gaineko zehapen-prozedurari buruzko jarraibideak", alegia 2010eko txostenean balorazioak egiteko oinarritzat hartu zituztenak. Edozein modutan, Arartekoak ez daki jarraibide horiek zertan diren eta, beraz, ezin ditu baloratu.

Amaieran, txostenak honako hau dio:

- "1. En ningún caso es lícito el cultivo de cannabis sin autorización administrativa, aunque sea para uso privado. Por el contrario, dicha actividad será constitutiva de delito contra la salud pública o, en su defecto, de infracción administrativa.*
- 2. Aun siendo autorizadas, las actividades de cultivo de cannabis pueden llegar a tener relevancia penal cuando están pre-ordenadas a su distribución entre terceras personas, incluyendo en este concepto la difusión entre los integrantes de la asociación promotora del consumo, si bien en relación con el autoconsumo compartido de drogas habrá de estarse a las pautas sentadas por la jurisprudencia para la falta de relevancia penal de esta conducta".*

Federazio kexagileak eman digun dokumentazioaren arabera, Guardiako Ikerketa Kriminaleko Unitateko buruak Ikerketako lurralde-buruei txostena helarazteko igorri zien jakinarazpenak ez ditu jasotzen, zehatz-mehatz, txostenaren ondorioak, nahiz eta adierazten duen komatxo artean bildu dituen irizpideak txosten horretatik aterata daudela. Izan ere, irizpideak partzialki daude transkribatuta, eta horrek esanahia aldatu egiten du erabat.

Aurrekarietan adierazi dugun moduan, jakinarazpenak honako hau dio:

- "1. 'En ningún caso es lícito el cultivo de cannabis sin autorización administrativa, aunque sea para uso privado. Dicha actividad será constitutiva de delito contra la salud pública'.*
- 2. 'Aun siendo autorizadas, las actividades de cultivo de cannabis pueden llegar a tener relevancia penal cuando están pre-ordenadas a su distribución entre terceras personas, incluyendo en este concepto la difusión entre los integrantes de la asociación promotora del consumo'.*
- 3. 'Le corresponde a la Agencia (Agencia Española del Medicamento y Productos sanitarios), la evaluación de las solicitudes y la emisión de la autorización, en su caso, para el cultivo de Cannabis en todo el territorio nacional, con excepción de los cultivos de Cannabis destinados a fines industriales que es competencia del Ministerio de Agricultura, Alimentación y Medio Ambiente".*

Ikusten denez, lehenbiziko puntuan txosteneko lehen ondorioa dago transkribatua, hitzez hitz, salbu azken hitz-tartea: "o, en su defecto, de infracción administrativa". Parte hori ez da ageri, ezabatu egin dute eta, beraz, ondorioa eta haren zentzua erabat desberdinak dira. Ondorioz, ematen den



jarduera-irizpidea, gure iritziz, kontsumo partekatuari buruzko Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren eta maila txikiagoko epaitegi eta epaimahaiek doktrina hori aplikatuz kontsumo partekaturako landaregintza kolektiboaren gainean hartu dituzten erabakien kontrakoa da.

Baimenik gabeko landaregintzaren garrantzi penalik ezari dagokionez, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak ekainaren 16ko 42/2014 epaian horren inguruan esandakoa mahaigaineratuko dugu: *"es evidente que el incumplimiento por parte de la asociación, en el caso que nos ocupa, de la normativa relativa a las autorizaciones administrativas para el cultivo de cannabis y a la utilización de éste con fines terapéuticos no es suficiente para afirmar la comisión del delito"* (Zuzenbideko Hirugarren Oinarria).

Jakinarazpenaren bigarren puntuan txosteneko bigarren ondorioa dago transkribatua, hitzez hitz, salbu azken hitz-tartea, *"si bien en relación con el autoconsumo compartido de drogas habrá de estarse a las pautas sentadas por la jurisprudencia para la falta de relevancia penal de esta conducta"*, ezabatu egin baitute. Aldaketa horren ondorioz, txosteneko ondorioaren zentzua desberdina da eta, gure iritziz, ezarritako jarrera-irizpidea jurisprudentziaren eta aipatu erabaki judizialen kontrakoa da, berriz ere.

Ez dakigu irizpide horiek Osasun Ministerioko Sendagaien Ikuskaritza eta Kontrol Sailak Segurtasun Saileko Koordinazio zuzendariari emandako erantzunetik atera dituzten, jakinarazpenak berak dion bezala, ez baitakigu dokumentu horren edukia zein den. Dena den, badirudi dokumentu hori cannabisa landatzea baimentzeko eskumenari buruzko hirugarren puntuan laburbildutakoa dela.

Gauzak horrela, bigarren txosten juridikotik eratorritako irizpideak eta Guardiako Ikerketa Kriminaleko Unitateko buruak Ikerketako lurralde-buruei txostena helarazteko egiten dien jakinarazpenetik eratorritakoak desberdinak direla dirudi eta, gainera, irizpide horiek, adierazita dauden moduan, ez datoz bat kontsumo partekatuari buruzko jurisprudentzia-doktrinarekin eta doktrina hori aplikatuz jurisdikzio-ordena penaleko maila txikiagoko epaitegi eta epaimahaiek cannabisa kontsumo partekaturako landatzearen gainean hartu dituzten erabakiekin. Gure iritziz, ez dakite Estupefazianteei buruzko apirilaren 8ko 17/1967 Legea konstituzio aurrekoa dela eta konstituzioaren arabera eta konstituzioak arautzen dituen gaien inguruko legeen eta jurisprudentziaren bilakaeraren arabera interpretatu behar dela, lehen aipatu dugun moduan; gainera, ez dituzte kontuan hartu lege horrek ezartzen duen zehapen-araubide administratiboak sortzen dituen eta lehen aipatu ditugun eragozpenak.

Gainera, Herrizaingo sailburuak 2011ko ekainaren 17an eman zuen eta gaur egun indargabetua dagoen Aginduaren bitartez Guardiako Ikerketa Kriminaleko Unitateari egokitutako zereginak arlo penolarekin zuten zerikusia. Zehazki, zereginak honela zeuden emanda: *"Delinkuentzia arruntaren eremuan, bere eginkizun orokorra da delituak eta faltak jazartzeko ikerketa eta informazioa"*





*antolatu eta kudeatzea eta, bestetik, bere eginkizun espezifikoa da delitu larriak eta krimen antolatua jazartzea” (l. eranskina, 5.3 atala).*

Gauzak horrela, uler daiteke, txostenak arau-hauste administratiboak aipatzen dituen arren, jakinarazpena bidalitako zentroei eskainitako irizpideak eta txostena bera esparru penalarri dagozkiola. Horrela baino ezingo litzateke ulertu jakinarazpenean txosteneko ondorioetan agertzen den arau-hauste administratiboen gaineko aipamena kendu izana.

Gure iritziz, ordea, jarrera horrek ez du laguntzen Estupefazianteei buruzko apirilaren 8ko 17/1967 Legeak eskaintzen duen araudi-esparru konplikatua argitzen. Lege hori (berriro azpimarratuko dugu) konstituzio aurrekoa da eta, beraz, konstituzioaren arabera interpretatu beharra dago eta konstituzioak berak, geroko legeria penalak eta justizia-epaitegiek errealitate sozial berriari ematen dioten tratamenduak eragiten die; eta cannabis erabiltzaileen elkarteak errealitate sozial berri horren parte dira, legea onartu zenean, 1967an, ez zegoelako horrelako elkarterik.

4. Badirudi Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak, kexaren inguruan eman digun informazioari begiratuta, bigarren txosten juridikoak eta txosten horren berri emateko egindako jakinarazpenak eragindako irizpide-aldaketa zuritu nahi duela, eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 2/2013 instrukzioa baliatzen duela zuri bidetzat, “cannabisa kontsumitzea sustatzen duten elkartei buruzko gai batzuen inguruko” instrukzioa, hain zuzen ere.

Ez dagokio Arartekoari Estatuko Fiskaltza Nagusiaren instrukzioak baloratzea. Dena den, aipatu sailak instrukzio hori baliatu badu irizpidea aldatzeko, adierazi behar dugu ez zaigula iruditzen instrukzioak irizpide-aldaketa justifikatzen duenik.

Horren harian, nabarmendu beharra daukagu cannabis landatzearen eta banatzearen garrantzi penalaren gainean instrukzioko ondorioetan jasotako irizpideak ez direla, gure iritziz, kontsumo partekatuari buruzko jurisprudentzia-doktrina penalaren kontrakoak; aipatu txostenetik eta jakinarazpenetik eratorritakoak, berriz, bai.

Instrukzioko ondorioetan honako hau dago jaso:

*CUARTA.- Si la asociación estuviera realizando actividades de cultivo de cannabis y distribución entre sus socios deberán realizarse las actuaciones complementarias que se estimen procedentes conducentes a la presentación de denuncia o querrela ante el órgano jurisdiccional competente, siempre que se sobrepasen los límites establecidos por la jurisprudencia del Tribunal Supremo respecto de la atipicidad del autoconsumo compartido de drogas.*

Bestalde, egoki iritzi diogu azpimarratzea, instrukzioak dion moduan, dokumentu horien helburuak direla, batetik, Fiskaltzako organoen irizpideak bateratzea, Elkartearen Erregistro Nazionalak edo haren baliokide diren erregistro





autonomikoek erregistro horietan izena ematea eskatu duten "*asociaciones promotoras del cultivo y consumo de cannabis*" en osaera edo estatutu-jarduerak ikuspegi penaletik legez kontrakoak direla nabaritzen dutenean igortzen dizkieten jakinarazpenetarako (Elkarteei buruzko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoko 30. artikulua); eta bestetik, elkarte horien jardueraren izaera juridiko-penala zehazteko egin beharrekoak ezartzea, eta baita Fiskaltzaren Estatutu Organikoko 3. artikuluko 4. eta 5. ataletan eta Prozedura Kriminalaren Legeko 105. artikuluan zehaztutako ekintza penalen eta gainerako zereginen egokitasuna interpretatzeko jarraibideak ezartzea ere.

Argitu beharra daukagu aipatu aginduetako gainerako zereginiek prozesu penalarekin eta arau-hauste penaletatik eratorritako ekintza zibilen erabilerarekin dutela zerikusia.

Instrukzioak, beraz, Fiskaltzak elkarteak erregistratzeko espediente administratiboan zer jarduera-irizpide aplikatu behar dituen zehazten du, erregistroek erregistratzeko eskaria egiten duten cannabis erabiltzaileen elkarteen osaera edo estatutu-jarduerak ikuspegi penaletik legez kontrakoak direla nabaritu eta jakinarazpena bidaltzen diotenean.

2013ko txostenetik eta haren berri emateko jakinarazpenetik Ertzaintzarako ateratako jarduera-irizpideak, ordea, orokorrak dira eta, horrexegatik, Elkarteen Erregistroan izena emandako elkarteak barne hartzen dituzte; baita bere garaian Erregistroak lege penalen kontrako aztarnarik sumatu ez bazuen edo, sumatu bazuen eta Fiskaltzari edo eskumena zuen jurisdikzio-organoari jakinarazi bazion, bide horretan atzera bota bazituzten ere.

Horrek ez du esan nahi, noski, erregistratutako elkarteen jarduerak ikuspegi penaletik legez kontrakoak izan ez daitezkeenik, baldin eta jurisprudentziak ezarritako mugak gainditzen badituzte. Asmoa da, soilik, Ertzaintzaren jarduera-irizpideei dagokien esparruaren eta aipatu instrukzioari dagokionaren arteko aldeak agerian jartzea.

5. Lehen Estupefaziantei buruzko apirilaren 8ko 17/1967 Legeak eragiten dituen interpretazio-arazoak azaldu ditugu. Arazo horiek sortzen dira, funtsean, legea konstituzio aurrekoa delako; Kode Penalak, gero, droga-trafikoa desberdin arautu duelako; Auzitegi Gorenak kontsumo partekatuari buruzko bere jurisprudentzia ezarri duelako; eta erabaki judizialean jurisprudentzia hori kontsumo partekaturako landaregintza kolektiboko kasuetan aplikatzen ari direlako.

Araudi argirik ez dagoenez eta kasu bakoitzean elkartearen jarduera aipatu jurisprudentzia-doktrinarekin bat datorren baloratu behar denez (eta, gainera, doktrina hori bera kasuz kasu osatzen doanez), errealitate horri, batzuetan, erantzun desberdinak ematen dizkiote.





Aurreko legealdian Eusko Legebiltzarrean gai hori aztertzeke batzorde txostengile bat eratzeko egindako legez besteko proposamenaren arabera, cannabis erabiltzaileen elkarteek ez dute segurtasun juridikorik. Hausnarketa hori oinarri hartuta, Bizkaiko Probintzia Auzitegiak honako hau adierazi zuen 2014ko ekainaren 16ko epaian:

*“Se comparte no ya la apreciación sobre la inseguridad jurídica a la que se refiere este documento sino, más en concreto, la preocupación por lo que la determina, la diversa respuesta por parte de la autoridad administrativa, policial y judicial. Es evidente que los casos que llegan a la jurisdicción penal son relativamente pocos en relación con la totalidad de asociaciones similares en funcionamiento, que la iniciativa policial depende de múltiples factores, que se actúa en unos momentos y en unas zonas y no en otros. Incluso cuando el asunto ingresa en un Juzgado de Instrucción la suerte que pueda correr resulta ciertamente impredecible, variando la respuesta judicial, que puede ser de archivo por sobreseimiento, bien en el mismo Juzgado bien en sede de apelación, o bien, en supuestos que revisten unos caracteres sustancialmente idénticos, de examen del supuesto en un juicio oral que puede terminar con sentencia condenatoria o absolutoria.”*

Arartekoak ere jarri zuen agerian cannabis elkarte sozialen jarduera arautzeko eta sistemari segurtasun juridikoa emateko lege-esparru argi bat zehazteko premia, aipatu batzorde txostengilean egin zuen agerraldian.

Egoera zer nolakoa den ikusita, ezinbestekoa da Ertzaintzaren arlo horretako jarduera-irizpideak argi eta garbi zehaztea, eta, gure iritziz, federazioak kexa jartzea eragin duten jarduera-irizpideak ez dira argiak.

Gauzak horrela, arlo horretan zehazten diren irizpideek baldintza hauek bete beharko lituzkete:

- a) Cannabis elkarte sozialetarako espezifikoak izatea, elkarte horiek esparru penalean tratamendu espezifikoa jasotzen ari direlako, kontsumo partekatuari buruzko jurisprudentzia-doktrinaren babesean.
- b) Irizpide gisa ezartzea, eta ez txosten juridikoak aipatuta, nahiz eta irizpideak txosten horietan oinarritu.
- c) Argi eta garbi bereiztea esparru penala eta esparru administratibo zehatzailea.

Gure iritziz, bi esparruak bateratzea edo irizpidea zer esparrukoa den ez zehaztea nahasgarria da, eta esparru juridikoak, esan bezala, argitasuna behar du.

Izan ere, adierazi dugun bezala, irizpideen berri zer unitatek ematen duen eta zer unitatek jasotzen duen aintzat hartzen badugu, badirudi irizpide horiek arau-hauste penalekin dutela soilik zerikusia. Ordea, egiten den analisia eta analisi horretatik eratorritako irizpideek esparru administratibo zehatzailearekin ere badute lotura.





- d) Arau-hauste administratibo posibleak zorrotz zehaztea, eta zer lege babesten dituzten eta zer gai dagozkien (osasuna eta herritarren segurtasuna) espezifikatzea.
- e) Arau-hauste horietan Ertzaintzak zer zeregin duen argitzea. Gure aburuz, hori ezinbestekoa da Estupezafizienteei buruzko apirilaren 8ko 17/1967 Legeko aurreikuspenak betetzen direla kontrolatzeko. Izan ere, esan dugun bezala, arau hori osasunaren arlokoa da, ez herritarren segurtasunari buruzkoa, eta badirudi lege hori ez betetzeak ez duela, gaur egun, garrantzi penalik.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –Ararteko erakundea sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, hau da Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari egiten diogun

## GOMENDIOA

1. Ertzaintzak cannabis elkarte sozialen inguruan dauzkan jarduera-irizpideak berrikustea, kontsumo partekatuari buruzko jurisprudentzia-doktrina penalarik egokitze aldera.

Arartekoaren iritziz, irizpide horiek ez datoz bat aipatu jurisprudentzia-doktrinarekin eta doktrina hori aplikatuz jurisdikzio-ordena bereko maila txikiagoko epaitegi eta epaimahaiek cannabis kontsumo partekaturako landatzearen gainean hartu dituzten erabakiekin. Gure iritziz, ez dakite Estupezafizienteei buruzko apirilaren 8ko 17/1967 Legea konstituzio aurrekoa dela eta konstituzioaren arabera eta konstituzioak arautzen dituen gaien inguruko legeen eta jurisprudentziaren bilakaeraren arabera interpretatu behar dela, lehen aipatu dugun moduan; gainera, ez dituzte kontuan hartu lege horrek ezartzen duen zehapen-araubide administratiboak sortzen dituen eta lehen aipatu ditugun eragozpenak.

2. Ezarritako irizpideak argi eta garbi zehaztea; gure iritziz, horretarako ezinbestekoa da:
  - a) Cannabis elkarte sozialetarako espezifikoa izatea, elkarte horiek esparru penalean tratamendu espezifikoa jasotzen ari direlako, kontsumo partekatuari buruzko jurisprudentzia-doktrinaren babesean.
  - b) Irizpide gisa ezartzea, eta ez txosten juridikoak aipatuta, nahiz eta irizpideak txosten horietan oinarritu.
  - c) Argi eta garbi bereiztea esparru penala eta esparru administratibo zehatzailea.







- d) Arau-hauste administratibo posibleak zorrotz zehaztea, eta zer legek babesten dituzte eta zer gai dagozkien (osasuna eta herritarren segurtasuna) espezifikatzea.
  
- e) Arau-hauste administratibo horietan Ertzaintzak zer zeregin duen argitzea. Gure aburuz, hori ezinbestekoa da Estupezafazienteei buruzko apirilaren 8ko 17/1967 Legeko aurreikuspenak betetzen direla kontrolatzeko. Izan ere, esan dugun bezala, arau hori osasunaren arlokoa da, ez herritarren segurtasunari buruzkoa, eta badirudi lege hori ez betetzeak ez duela, gaur egun, garrantzi penalik.

